







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %5,9 egin zuen gora ekainean, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %2 igo zen eta zerbitzu arloan %8,9.

Lehen sei hilabetez izandako kontsumo metatuak %3,3 egin zuen gora; etxeko sektorean %5,8 igo zen, industrian %0,3 jaitsi zen; zementu eta karea sektoreetan, aldiz, %16,4 igo zen, baita itsas eraikuntza eta konponketa, %36,1, siderurgia eta galdagintza sektoreek ere gora egin dute, %1,3 zehazki. Behera egin dutenak, ordea, beiragintza (%10,9), papera eta kartoia (%4,8) eta kimika sektorea (%2,1) izan dira.

#### Gas naturala







Ekainean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %9 egin zuen behera, 2014ko ekainean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %37,1 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %2,5 igo zen. Lehen sei hilabetez izandako kontsumo metatuak %8,6 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%4,5 CCTT-n eta +%11,3 gainerako sektoreetan).

#### Erregaiak garraioan

Maiatzean, garraioan erregaien kontsumoa %0,6 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %4,3 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %1,1 egin zuen gora. Maiatza arteko kontsumo metatua %0,9 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %3,1 egin zuen behera eta A gasolioarenak, ordea, %1,4 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAetik kanpoko egoera

#### Petrolioaren kontsumoa munduan






Ekainean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 92,9 milioi kupel izan zen (2014ko ekainean izandakoaren aldean, %1,8 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,6 egin zuen behera kontsumoak, 13,46 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3 egin zuen gora, eta 11,4 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %3,8 igo zen, eta 19,5 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,3 igo da, oro har, Txinan %3,6 eta AEBetan %0,9; Europar Batasunean, berriz, %0,1 jaitsi da.

#### Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %0,5 egin zuen behera ekainean, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Ekainera bitartean izandako kontsumo metatuak %5,5 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen ekainean, %3,7, 2014ko ekainean izandakoaren aldean. Ekainera bitartean izandako kontsumo metatuak %2,8 egin zuen gora. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %0,7 egin zuen gora maiatzetan, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %1,6 jaitsi zen, eta gasolioena, ordea, %1,2 igo zen. Maiatzera bitarteko kontsumo metatuak %2,6 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,6 jaitsi zen gasolinena eta %3,3 igo zen gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %9,9 egin zuen gora maiatzetan; maiatzera bitarteko kontsumo metatua %4,7 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 54,7 €/MWh izan zen ekainean; duela urtebete baino gehiago, %8,2 egin zuen gora.

#### Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 20,5 €/MWh izan zen maiatzean, eta %8,7 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Ekainean, EGIX-en prezioa 20,7 €/MWh izan zen (2014ko ekainean izandakoarekin alderatuta, %20,5 igo zen). Spot merkatuetan, ekainean, Henry Hub-en prezioa 8,4 €/MWh izatera iritsi zen, 2014ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %26,5 jaitsi zen. Japonian 21,2 €/MWh izan zen (2014ko ekainean izandakoaren aldean, %43,7 egin zuen behera).

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 62,4 \$ (51 €) izan zen ekainean. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %32,7 egin zuen behera (%25,4 eurotan).

#### Erregaien prezioa

EAEn, maiatzean, gasolioaren prezioa 1,19 €/l izan zen (urtebete baino gehiago, %9 jaitsi da), eta gasolinarena 1,29 €/l (urtebete baino gehiago, %7,6 jaitsi da).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,5 €/t izan zen ekainean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %33,8 egin du gora.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.